

## TREBAKUNTZA 2015-01: BERA/BERDIN

**OHARRA:** *asteriskoz eta kurtsibaz idatzitako esaldiak gaizki daude, eta gainerakoak zuzen.*

### OHIKO AKATSAK

1. \* *Auto **berdinean** joan gara biok bilerara.*
2. \* *Atezain **berak** esan zidan etorriko zela.*
3. \* *Bi udal horiek idazkari **berdina** dute.*
4. \* *Eraikin **berdinean** daude kultur teknikariaren bulegoa eta liburutegia.*
5. \* *Alkateak eta arkitektoak kamiseta **bera** daukate.*
6. \* *Aurten, egun **berdinean** hartuko ditugu oporrak.*

### ZUZENKETAK ETA AZALPENA

*Bera* ez da *berdin* hitzarekin nahasi behar.

**Bera:** gauza bakarra da, baina behin baino gehiagotan errepikatzen da:

*“Senar bera daukate bi andre horiek, jakinaren gainean egon barik”* (senar bera bientzat) .

Ikusten denez, *bera* hitzak baino ez du deklinabide marka hartzen: *senar bera*.

**Berdin:** elkarren antza duten gauza bi edo gehiago.

*“Zure jantzia eta nirea oso antzekoak dira, berdinak dira”* (jantzi bana).

Bestalde, *bera* hitzak badu beste zeregin bat: aurreko hitzak adierazten duena azpimarratzea,

U d a l e r r i E u s k a l d u n e n M a n k o m u n i t a t e a

[www.uema.eus](http://www.uema.eus)

Donibane enparantza 1, 1.a  
48380 Aulesti  
Bizkaia  
94-627.91.95

Done Petri 14, behea  
20180 Oiartzun  
Gipuzkoa  
943-26.03.72

Enparan kalea 1, 2.a Sindikatu zaharra  
20.734 Azpeitia  
Gipuzkoa  
943-81.66.99

*nor eta..., norekin eta...* esapideen antzera. Eta lehen azaldu dugun erabileran ez bezala, aurreko hitzak ere hartzen du deklinabide marka.

*“Sailburu**ak** ber**ak** eman dizkigu zorionak”.*

*“Alkate**arekin** ber**arekin** egin nuen topo oporretan”.*

Beraz:

1. Auto **berean** joan gara biok bilerara.
2. **Atezainak berak** esan zidan etorriko zela.
3. Bi udal horiek idazkari **bera** dute.
4. Eraikin **berean** daude kultur teknikariaren bulegoa eta liburutegia.
5. Alkateak eta arkitektoak kamiseta **berdina** daukate.
6. Aurten, egun **berean** hartuko ditugu oporrak.

\*\*\*\*\*  
\*\*\*\*\*

Azalpenotatik zerbait ulertu ez baduzu, edo gehiago sakontzeko ariketarik nahi baduzu, jarri harremanetan UEMAKo teknikariarekin edo zure udaleko euskara teknikariarekin:

Telefonoz: 94-6279195 (Ibon)

Posta elektronikoz: [iratxe.udalak@uema.eus](mailto:iratxe.udalak@uema.eus) (Ibon)

Hurrengora arte!

**U d a l e r r i E u s k a l d u n e n M a n k o m u n i t a t e a**

[www.uema.eus](http://www.uema.eus)

Donibane enparantza 1, 1.a  
48380 Aulesti  
Bizkaia  
94-627.91.95

Done Petri 14, behea  
20180 Oiartzun  
Gipuzkoa  
943-26.03.72

Enparan kalea 1, 2.a Sindikatu zaharra  
20.734 Azpeitia  
Gipuzkoa  
943-81.66.99